


120 BH oinez

Ignaziar bideak, Euskadin, zenbait zatitan, Ibilbide Handiarekin edo 120 Bide Handiarekin bat egiten du. Konkretuki Gipuzkoan 120 BH aurkitzen dugu, Loiolan, Arantzazura garamatzen norabide berean. Erromesak Urola ibaiaren bidea ala mendien bidea hartuko duen aukeratu behar du, 120 BHa jarraituz. 120 BHa jarraitzea erabakitzen badu, hemendik Zumarragaraino 700 metroko malda eta beste 300 metroko jaitsiera aurkituko du. Baina, bide hau laburragoa da, eta etapa 15,5 km-tara laburtzen da. Bide honetatik Zumarragako Andra Mariaren basiliza edo Antioko basiliza ikusi ahal dugu (Urola ibaiko bidea hartzen badugu gero Antiokora igo beharko dugu taxiz bisitatu nahi izatekotan)

120BHtik ibiltzeko ohiko zeinu gorri/zuriak jarraitu behar dira. Hauek faroletan, zuhaitzetan eta harrietan aurkituko ditugu.



<http://turismoa.euskadi.net/eu/kultur-ondarea/zumarragako-andre-mariaren-eliza-antioko-baseliza/x65-12375/eu/>



Andre Mariaren eliza (Antioko basiliza) euskal baselizen katedrala dela diote. XII. mendeko gotorleku baten gainean eraiki omen zuten. Tenplu honi buruzko lehen agiriak 1366koak dira eta herriko parrokia izan zen 1576. urtera arte. Kanpoaldea apaindura gutxikoa da. Barrua, aldiz, ikusgarria. Haritz zurez egindako kasetoidura estalkia du, habe, tirante, karel eta jabaloi egitura konplexu batez osatua.

Bisita ordutegia : Maiatzaren 1etik urriaren 31ra: Egunero: 11:30-13:30 eta 16:30-19:30. Astelehenak itxita. Azaroaren 1etik apirilaren 30era: Ostiraletan: 15:30-17:30. Asteburuetan eta jaiegunetan: 11:30-13:30 eta 16:00-18:00.